# Agenda



**◆Gaur:**

☆**Eginen** inguruko gertaerak direla eta, arratsaldeko 19:30etan batzarra Musika Plazan.

**◆Bihar:**

☆Manifestazio nazionala: arratsaldeko 17:00etan Donostiako Antiguako tunelean.

☆Jarrai gazte erakundeak antolatutako bizikleta martxa: **Kostaldea Bizirik** lemapean, goizeko 10.00etan irteera Zumaian. Argibide gehiago biharko ***Zarautz Egin***en.




zarautz
egin

OSTIRALA 17
1998ko UZTAILA



# Zarautzen ere Egin, egingo dugu!

**Zarautzek ez du bere hitza galduko borroka honetan**

Eginek jasan duen eraso bortitz eta justifikaezin honen aurrean, Egin egunkarian sinesten dugun zarauztar guztiok gure ahotsak egunero kalean jarraitu behar duela erabaki dugu.

*Euskadi información* egunkariarekin batera doan jasoko duzue lau orrialde izango dituen ***Zarautz Egin*** berri hau. Lehen baino indar eta gogo gehiagorekin, aurrera egiteko prest gaude.